



## **Gipuzkoako Bazkondeak Indiara joateko Misio komertziala antolatu du**

- *Misio Komertziala martxoaren 23a eta 27a bitartean egingo da.*
- *Hamahiru enpresek parte hartuko dute, horietatik 11 gipuzkoarrak.*

**Donostia, 2015eko martxoaren 20an.** Indiara joateko misio komertziala Gipuzkoako Bazkondeak antolatzen du, Arabako eta Bilboko Ganberekin batera eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailaren laguntzarekin.

Misioa martxoaren 23a eta 27a bitartean egingo da eta 13 enpresek parte hartuko dute, 11 gipuzkoar eta 2 bizkaitar. Sektoreei dagokionez, makina-erreminta, industria hornikuntza eta industriadako osagaiak, Oil and Gas eta zerbitzuen sektorea dira.

Misio honen helburua Indiak dituen aukerak gure enpresei gerturatzea da, merkatura sartzeko erraztasunak ematea eta euren sektorearen egoera bertatik bertara nolako den ezagutzeko aukera izatea. Euskal enpresen ordezkariak osatzen duten hamahiru enpresak asmo horrekin joango dira Indiara, herrialde honetako merkatu gehienak une honetan hazkundera baitaute.

### **India**

India, etorkizuneko munduko potentzia handianetako bat da eta geroz eta gehiago dira bertako merkatua hornitzeko asmoarekin herrialde honetara joaten diren enpresak. India aukeren lurraldea bezala ikusten dute eta.

Gaur egun, Indiak, 1.236 miloiko biztanlegoa du, horietatik %65a lan egiteko adinean dago eta 2050erako planetako herrialderik jendetsuena izango dela aurreikusten da.

Esportazioei dagokionez, 2013an espainiako merkantzia esportazioen kopurua 1.122 miloi euroko izan zen guztira. Esportatu ziren produktu nagusiak: makina eta tresna mekanikoak (esportazioen %24,14 suposatuz), materia plastikoak eta bere manufakturak (8,31%); tresna eta material elektrikoak (8,18%); produktu kimiko organikoak (8,09); eta automobilak eta traktoreak (7,14%).

Indian eskaera potentzial gehien duten sektoreak ondorengoak dira: instrumentuak eta doitasun tresnak, larruak, zeramikako produktuak, material elektrikoa, makinaria,



defentsa materiala, grabaketa tresnak edota ikusentzunezkoak eta taninoa. Beste arlo batzutan ere badiera aukerak, hala nola, nekazaritzako elikagaien industriaren fabrikazioan eta nekazaritza makinarian, uren kudeaketan eta energia sortzen duten gailuetan (energia berriztagarriak eta gasa). Zerbitzu sektorean, berriz, mugikorren zerbitzua eta modako frankiziak dira.

Inbertsio aukerei dagokionez, automobilgintza (osagaien fabrikazioa bertan sartuta), bioteknologia - biofarmaceutika, osasun-tresnak, finantza zerbitzuak, IKT eta turismoko azpiegiturak (hotelak) dira hazkunde potentzial handia eta dinamismoa erakusten dutenak. Herrialdeak garraio eta energia azpiegituretan dituen gabeziak ere aukera bihurtzen dira mota honetako eraikuntza proiektuak eraikitzeko orduan.

***Informazio gehiago nahi izanez gero:***

Irene Bengoetxea

**[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)**

943 000 310 / 688884347